



FUNTSEZKO JARDUERAK

Arazo edo behar bati erantzuten dion proiektua denez, zer adineko pertsoneri ekarriko dien onura zehaztearekin batera, zer arazo konpontzen saiatu beharko dugun ere aztertu beharko dugu. Ikerketak eraman beharko dira aurrera (festetan zernolako bitxiak, betaurrekoak, jantziak.. erabiltzen diren..).

Ondoren, gure bezeroen eskariak aztertu (bakoitzak berea izango baitu) eta sorkuntza prozesua martxan jarriko dugu. Azkenik, sortutako produktua bezeroari banatuko zaio, garraio-banaketa bidez.

Gure funtsezko jarduera ekoizpena da, manufaktura-enpresa bat garelako. Produktu pertsonalizatuak diseinatu, ekoiztu eta banatzen ditugu.

→ **Kanpoko enpresen esku:**

Geure bitxi edo osagarriak egiteko beharrezko materialak beste inguruko enpresa txikietatik eskuratuko ditugu. Horrela, komertzio txikiak bultzatuko ditugu gure proiektuaren bidez

